



HERRIKO KONTSEILUKO ERABAKIA ORTZAIZEKO HERRIA

2021eko uztailaren 6ko bilkura

Bi mila eta hogeita batgarren urtean eta 2021eko uztailaren seian, zortzi eta erdietan, Herri honetako Herriko Kontseilua, erregulartasunez deitua izanik, legeak manatzen duen kopuruan bildu zen, Herriko etxeko gelan, Jean-Marc OÇAFRAIN Auzapezaren lehendakaritzapean

Hor zirenak : AYÇAGUER Elorri, CASIRIAIN Elena, DACHAGUER Peio, FALXA Odile, HEGUY Antton, IDIART Claudine, IÑARRA François, IRIART Jean Claude, JORAJURIA Ramuntxo, LEKUMBERRY Xantxo, MATEO Jean François, OÇAFRAIN Jean-Marc, PERUSANSENA Elodie

Barkatuak zirenak : CHAMALBIDE Corinne, M. GOICOCHEA Iñaki,
Bilkurako idazkari izendatua izan da : IDIART Claudine

Deialdiaren eguna : 2021eko uztailaren 2a

Afitxatze eguna : 2021eko uztailaren 2a

9.ERABAKIA : EUSKAL MONETAREKIN HITZARMENAREN FINKATZEA.

Nomenklatura : 7.9

Euskoa tokiko moneta osagarri bat da (TMO), ipar Euskal Herrian sortu zen 2013ko urtarrilaren 31an, eta Ekonomia Sozial eta Solidarioko 2014ko uztailaren 31ko legearen arabera (16.artikulua) funtzionatzen du. Baionako sufekturan grabatua den Euskal Moneta – Monnaie locale du Pays Basque irabazi asmorik gabeko elkarteak borondatez eta demokratikoki kudeatzen du.

TMO bat ordainketa titulu bat da, lurralde jakin batean eta kudeatzen duen elkarteak baimendutako kide sare baten barruan bakarrik erabil daiteke ; kideak enpresa, elkarte eta tokiko erakundeak dira. Horrela, 2021ko ekainan, 1.200 profesional baino gehiagok eta 3.800 kide partikular baino gehiagok erabiltzen zuten Euskoa. Azken horiek, kide tu ondoren, euroak euskoz truka ditzazkete (1 euro = eusko 1) eta gero, baimendutako hartzaileen ordaintzeko erabili.

Euskal Monetak Euskoen aurka jasotako euro guztiak erreserba-funts batean gordetzen ditu, Nef-eko edo Crédit coopératif-eko kontu edo aurrezki kutxako libretetan.

Euskoa Euskal Herriko ekonomia birkokatzeko eta dinamizatzeko tresna bat da ere, tokiko erosteko ahalmenaren zati bat hurbileko komertzio eta zerbitzuetara, tokiko ekoizleengana eta lurraldeko elkarteengana bideratzen baitu. Kostaldearen eta barnealdearen arteko elkartasuna ere garatzen du, sortzen dituen komertzio harremanei esker.

Praktikak ekonomia solidariora, garapen jasangarrira eta euskararen sustengura bultzatzeko tresna bat da ere. Sarearekin bat egiten duten profesionalak desafio errazei aurre egiteko engaiamenduak hartzen dituzte : beren erosketak bertokiratzea, ingurumena hobetzea eta euskararen erabilera publikoa sustatzea, euskarazko afitxaketa itzuliz edo bezero edo erabiltzaileei gutxieneko euskarazko harrera eginez.

Azkenik, Euskoa tokiko elkarte bizia laguntzeko tresna bat da: eusko kide bakoitzak, kidetzen denean, babestuko duen elkarte bat hautatzen du, eta elkarte horrek urtero Euskotan aldatzen duen kopuruaren %3ko dohaintza jasoko du. 2013tik 130.000 euro baino gehiago banatuak izan dira (euskotan), eta horietatik 38.674 eusko 2020an.

Gaur egun, Euskoa Europako lehen tokiko moneta da. Euskal Moneta – Monnaie locale du Pays Basque, Frantziako tokiko moneta osagarrien sareko eta SOL Mugimenduko kidea da.

Euskoaren arrakasta borondatezko mobilizazioaren garrantzian eta elkarlanak sortzeko gaitasunean oinarritzen da, Herrikoa, Euskal Erakunde Publikoa, Euskal Herria Bihotzean, Baionako Merkataritza eta Artisautza Batasuna, Hendaiaiko Turismo eta Merkataritza, Idoki, Euskal Herriko Turismo Bulegoak eta abarrek egin duten bezala. 26 herriko etxe eta Euskal Hirigune Elkargoa Eusko kideku dira.

Ortzaizeko herriak, bere lurraldean ekonomia eta jendarte elkartasuna, trantsizio ekologikoa, elkarte bizitza eta euskararen erabilera publikoa bultzatzeko asmoa du. Horretarako, herriari 2021eko irailaren 1etik aintzina Euskal Moneta - Monnaie locale du Pays Basque elkarteari kidetzea proposatzen zaio, urtebetez (isilbidez, berrituko dena). Kidetzearen zenbatekoa 85 eurokoa da.

Kidetze horrekin batera, herriko kontseiluak auzapezak izenpetuko duen batzar-proposamen bat egin du, eta honen bidez, Euskoari buruzko informazioa zabalduko du, bere lurraldeko biztanleer, enpresen eta elkarteen.

Lurraldean Euskoaren zirkulazioaren garapenean parte hartuz, herriak, era berean, hartzekodun guztiei proposatzen ahalko die ez eurotan jasotzea, baizik eta euskoz (osoki edo zati bat), baldin eta Eusko kide badira, eta adostasun askean oinarrituz. Hautetsien kalte-ordainak, elkarleen diru laguntzak, merkatu publikoarekin zerikusia duten fakturak eta abar izan daitezke.

Herriak, Eusko tokiko moneta osagarria onartzen ahalko du, diru sarrerei buruzko arautegiaren xede diren zenbait herriko jardueratan, horrelakorik badu. Jaso Euskoak euro bihurtuko dira Altxor publikoan sartu aintzin, eta Euskal Monetak kidezuren zenbatekoa baino hamar aldiz gehiagoko errezeta aldatuko du komisiorik hartu gabe.

Herriko kontseiluak hitzarmen proposamen horri buruzko iritzia eman behar du.

Herriko kontseiluak Auzapezaren azalpenak entzun eta deliberatu ondoren

ERABAKITZEN DU Euskal Moneta - Monnaie locale du Pays Basque elkartean kidetzea.

ERABAKITZEN DU hitzarmen bat idatzia izan dadin, ondoko zehaztasunekin:

- Herriarrei eta herriko aktore sozio-ekonomikoei zuzenduriko Euskal Monetaren ekintzak
- Herriak Euskoaren garapenearen sustenguz egin ekintzak
- Euskoa ordaintzeko tresna gisa onartzeko moduak, diru-sarreren araudia bete behar duten herri jarduerak
- Herriaren Euskoaren zirkulazioan parte hartzeko modalitateak

BAIMENTZEN DU Auzapeza hitzarmenaren izenpetzera,

ZEHAZTEN DU Kredituak herriko 2021ko buxetan idatziak izanen direla.

Kide kopurua : 15

Hor zirenen kopurua : 13

Balitzko boz kopurua : 13

ALDE : 13

KONTRA : 0
ABSTENTZIO : 0

Hala erabakia, gaineko egun, hilabete eta urtean. Bertaratu diren kideek sinatu dute erregistroan.
Araberatasunez ziurtatu erabakia.

ORTZAIZEn, 2021eko uztailaren 29an
Auzapeza,
Jean-Marc OÇAFRAIN

Betegarria bilakatu den akta,
2021/07/30ean publikatu edo notifikatu ondoan,
Eta Prefeturan pausatu ondoan 2021/07/30a